

Isun handia ordaintzera kondenatu dute Ttattola gaztetxeko kidea

KAZETA.EUS :: 22/06/2023

Baionako epaitegian egin epaiketari errudun jo dute Hazparneko gaztetxeko kide bat.

Baionako auzitegiak isun handia ezarri dio Hazparneko Ttattola gaztetxeko kideari. Hazparnen etxe bat okupatzeagatik auzipetu zuten Ttattola gaztetxeko kide bat maiatzaren 25ean Baionako auzitegian, eta gaur, ekainaren 22arekin, toki berean epaia eman dute.

Errudun jo du epaileak 27 urteko neska gaztea. Okupazio kolektibo batengatik bakarrik erantzun behar izan du. 600 euroko isuna ezarri diote, horietatik 400 euro gibelapenarekin. Horrez gain, 1.400 euro prozedura administratiboko gastuengatik, 1.578 euro kalte materialengatik, 2.000 euro kalte moralengatik eta 1.200 euro abokatu gastuengatik. Orotara 6.000 euro baino gehiago. Ez dio helegiterik jarriko auzitegiaren erabakiari.

Yolanda Molina abokatua suminduta agertu da. Bere erranetan, «ez du deus ikusirik errealtatearekin, ez da erreala, dena da sos afera bat eta penagarria da horrela izatea».

Auziak 2021ko agorrarean du jatorria, gaztetxe bat ukaiteko helburuarekin, Davidenia izeneko etxe hutsa okupatu baitzuten hainbat gazte hazpandarrek. Hilabete berantago kanporatu zituen poliziak. Etxe horretan indarrez eta mehatxuka sartzea egotzi zioten neskari.

«Taldea indarraren haustea»

Prokuradoreak, arau haustea errepikatzeko arriskurik ez zela egotzirik, 600 euroko isuna galdegin zuen gaztearentzat maiatzaren 25eko auzian, horren erdia gibelapenarekin. Yolanda Molina gaztearen abokatuak, berriz, errugabetzea galdegin zuen, auzi zibil eta administratiboa zelakoan, eta ez penala; jabearen abokatuak, bere aldetik, sarrailearen hauste eta prozedura gastuengatik kalte-ordainak eskatu zituen.

Ordukoan Baionako auzitegiaren aitzinean bildurik, okupazioa kolektiboki egin zutela oroitarazi zuten gazte hazpandarrek, eta horren erantzulezat kide bakar bat hartzeak «taldea indarraren haustea eta presioa pertsona bakar baten gainean ezartzea» bilatzen duela.

<https://eh.lahaine.org/isun-handia-ordaintzera-kondenatu-dute>